

PRENTSA-OHARRA

Irati Jimenez idazleak eta Petti musikariak ironiaz, umorez eta maltzurkeria apur batez prestatutako poesia- eta musika-errezitaldia eskainiko dute bihar, ostiralarekin, Kondestable Civivoxean

Saioa 20:00etan izango da, sarrera libre da, eta Nafar Ateneoak eta Udalak elkarlanean antolatzen duten programazioaren barruan sartzen da

Irati Jimenez idazleak eta Petti musikari nafarrak *Nigan, ispilu batean bezala* poesia- eta musika-errezitaldia eskainiko dute bihar, martxoaren 16an, ostiralarekin, Kondestable Civivoxean, 20:00etan, Iruñeko Udalak Nafar Ateneoarekin elkarlanean urtero antolatzen duen euskarazko kultur programazioaren barruan. Sarrera libre da.

Nigan, ispilu batean bezala musika eta literatura oinarri dituen ikuskizun bat da, non ispilua aitzakia gisa baliatuko baitute Irati Jimenezek eta Pettik literaturari, idazleei eta idazketa-prozesuari buruz hausnarketa egiteko, ironia, umore eta maltzurkeria apur batekin. Hainbat galdera plazaratuko dituzte, hala nola, zer ikusten duen literaturak berak bere burua ispiluan islatuta ikusten duenean, zer nolako papera izan duten ispiluek literaturan eta nor diren gaur egungo Nartzisoak, haien irudiaren menpe bizi diren horiek. Literaturaren gozoa eta garratzari buruzkoak entzungo ditugu Civivoxean, Iratiren hitzen eta Pettiren musikaren bidez, egiak, egoak eta metaforak hizpide.

Udalak eta Nafar Ateneoak elkarrekin antolatzen duten euskarazko kultur programazioaren barruko hurrengo hitzordua apirilaren 26an egingo den hitzaldia izango da: *Artze... Joxan gogoan* izenburupean, Andoni Salamero idazle eta poetak duela gutxi zendu zen Joxean Artze euskal kulturako erreferentearen bizipenen errepasoa egingo du. 19:30ean izango da, Kondestable Civivoxeko patioan.

Letren eta musikaren arloan erreferenteak diren artistak

Irati Jimenez Uriarte idazle eta kazetaria Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna da, eta kazetari aritu da prentsa, telebista eta irratan. *Nabarra* aldizkariaren zuzendari izan zen, eta komunikazio-aholkularitzan eta Internetarako edukien sorkuntzan espezializatu da. Haren lehenengo eleberriarekin –*Bat, bi, Manchester* (2006)– eleberri laburreko Augustin Zubikarai saria eskuratu zuen, eta *Nora ez dakizun hori* (2009) nobelarekin, Igartza literatur sariko

1. orrialdea, (e)tik 2





acesita. 2016an *Gatza*, *Odola* eta *Musua* liburu esperimentalak argitaratu zituen, literaturaren eta kazetaritza-lanaren arteko hibridoak.

Juan Luis Pérez Mitxelena 'Petti' Berako musika-sortzaile eta -interprete ezaguna da. Eragin-uztarketa harrigarria sumatzen da haren musikan; hor ageri dira, besteak beste, Nick Cave, Tom Waits eta Mikel Laboa. Kantautore berezi bihurtzen dute musika sortzeko, abesteko eta gitarra "zarrastatzeko" dituen molde bitxiak. Bakarkako 6 disko argitaratu ditu, eta hainbat lan beste musikari batzuekin batera, hala nola Anari, Txuma Murugarren, Rafa Rueda, Xabi Garre (Señor No) eta Estatu Batuetako Barrence Withfield soul musikaria. Halaber, Terry Lee Hale, Anari, Morau, Rafa Rueda eta Bidaia artisten proiektuetan kolaboratu du, besteak beste.

Iruñean, 2018ko martxoaren 15ean 2018

